	<b>OÑATIKO UDALA</b>	
	Erregistro Data	
	2014 AZA 25	
	SARRERA	IRTEERA
	2169 jakinarazpen	

## Oñatiko Udal Osoko Bilkurara

Juan Carlos Aramburu Ruiz jaun/anderea, Bidebarrieta kalea 12-ko helbidearekin, hurrengo erakundeek eraturako plataformako ordezkari zarekin:

- ECA-OCUV kontsumitzaile antolaketa.
- EKE-a kontsumitzaile antolaketa
- Euskadiko Merkataritza Elkartearen Konfederazioa, Euskaldendak.
- Bizkaiko Merkataritza Elkartearen Federazioa, Bizkaidendak.
- Gipuzkoako Merkataritza Elkartearen, Dendartean.
- ELA sindikatua.
- LAB sindikatua.
- CC.OO sindikatua.
- UGT sindikatua.

7/1994 Merkataritza aktibitatearen buruzko Legearen ustezko Laugarren Aldaketari buruzko kezka jartzen dugu zure ezagueran eta 2014ko irailaren 1eko erabakia, Merkataritza eta Turismoko Sailburuordearena, non erabakia publikoa egiten den, Bilboko udalean, etorri turistiko handiko zonei buruzkoa, merkataritza ordutegien aldetik.

Proposamen honen jatorria, "etorri turistiko handiko zonetako" aurreikuspenetatik ondorioztatutako beharrian okerra da 20/2012 Errege-Dekretu-legean (aurrekontu egonkortasuna eta lehiaren sustapeneko neurriak bermatzeko, uztailaren 13koa) eta 8/2014 Errege-Dekretu-legean (hazkunderako, lehiarako eta eraginkortasunerako presazko neurrien onespenekoa, uztailaren 4koa) jasoa.

Beharrian okerra diogu, **Eusko Jaurlaritzako merkataritzan inguruko kompetentzien inbasio argia delako.**

Puntu hori alde batera utziz, Errege-Dekretu-lege horiek duen transposizio zorrotzak, hurrengo hauetan ditu **ondorioak**:



1. **Generoaren aldetik**, emakumezkoak nagusi diren sektore batean (okupazioaren %63) eta haien lanaldiak aldaketak jasango dituela jakinik, atsedenerako eskubideari eragingo lioke eta bizitza familiarra eta bizitza laborala zailduko lituzke.
2. Barne merkataritza merkataritza turistiko bilakatzea. Horrek legegintzan esku-hartze bat suposatuko luke, gastu publikoaren transferentzia bat guri eragiten digun zonetan.
3. 2.261 merkataritza establezimenduren suntsiketa eta 3.886 enpleguren galera hirigunetik kanpo.
4. Zerga bilketetan galera, izan ere, merkataritza establezimendu txiki asko, sedea hemen dutenak, itxi egingo lirateke (BEZ bilketan galerak, sozietate gaineko

zergetan galerak, etab.). Gainera, alokatzeko prezioen gorakadak, merkataritza establezimenduen irteera eragingo du kaltetutako eremuetan.

5. Ingurumenaren iraunkortasunean eragina (energia kontsumoa eta ibilgailu pribatuaren erabilera handitu). Beste esperientzia batzuekin konparatzen baditugu, adibidez, Alemaniako kasuarekin, aldagai hauek bizitza laboralarekin batera kontuan hartzen dira araututako ordutegiak sortuz.

Egoera hauek aztertuta, horiei buruzko eranskina bidaltzen dizuegu (emandako aldarrikapenekin). Eusko Jaurlaritzan eta Eusko Legebiltzarrean ahalik eta arinen mozio bat aurkezteko eskatzen dizuegu, aipatutako aurrekarietan oinarrituz:

1. Euskadiko autogobernuaren eta merkataritzaren inguruko konpetentzia propioen defentsan, Konstituzio Auzitegian merkataritzako eta turismoko aurreikuspenak errekurrizeko, 20/2012 Errege-Dekretu-legean (aurrekontu egonkortasuna eta lehiaren sustapeneko neurriak bermatzeko, uztailaren 13ko) eta 8/2014 Errege-Dekretu-legean (hazkunderako, lehiarako eta eraginkortasunerako presazko neurrien onespenekoa, uztailaren 4koa) jasota daudenak”.
2. 2014ko irailaren 1eko EBAZPENA baliogabetzeko, Merkataritza eta Turismoko sailburuordearena, non Bilboko udalean etorri turistiko handiko zonei buruzko erabakia publikoa egiten den, merkataritza ordutegiei dagokiona.



JUAN CARLOS ARAMBURU RUIZ  
TXANDAKO LEHENDAKARIA